KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2024ko otsaila - 246 zkia.

aek
23.korrika
HARRO HERRI
Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

Julio Guimerans Pereira

Galiziako uhinetan hezita

AKERBELTZ VENEZIARA DOA • KALAPUTXIXAK, PITXILIKOTIAK ETA TXIMELETAK EDERRENA • MUTRIKUAR GAZTEAK BRAGAN
KAZETARITZA ETXETIK URRUN

Mutrikuko Udala

Martxoak 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA

OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Alzheimer elkartea 943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai ..... 943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) 943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa ..... 943 60 70 48 /679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Kontsortzioa 943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua 943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua 943 60 71 37
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 944 333 333
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87

Iritzixa

Arantza Ugarte Lopetegi “Oikina”

Neguko egun ilun-hotzak epel eta eguzkitsu izan ditugu, aurten, gehienetan... Negu epelean hezurrak goxo! Edo, negua eta hego haize epela... akabo! Ez du euririk egingo eta... gero... Gero zer datorren ez jakiteak kezka sortzen digu. Aldaketak ez zaizkigu gustatzen. Zer datorkigun ez dakigunean... kezkatu eta beldurtu egiten gara.

Eta ohitu egin gara gero eta bizimodu programatuagoa edukitzera. Gauza bat da eguneroko bizitza norberak antolatzea eta bestea, dena programatuta dugula bizitzea.

Hala ere, egunerokoan ustekabeak sortzen zaizkigu eta une bakoitzean ustekabe horiei aurre egin behar izaten diegu. Horrela bizi izan naiz ni behintzat. Orain, ordea, aldez aurretik jakin nahi dugu dena. Euririk egingo al du? Goizeroko galdera... Igual bai, bada ez bada eraman guardasola... Eta eguzkirik? Igual bai, bada ez bada hartu eguzkitako betaurrekoak... Eta haizea egiten badu? Haizea egiten badu, hankak lurrera lotu aidean eraman gabe... Eta....? Eta...? Hauxe da gaitza etorri zaiguna, dena aldez aurretik jakin beharra... Guk, norbanakoak eta guri zerbitzuren bat ematen digutenak ere bai...

Bai, bai, bai... Edozertarako txandak aurrez hartu behar dira: medikuarengana joateko, administrazioarekin hitz egiteko, etxeko iturria konpontzeko, bonbila erre delako, telebista SDtik HDra pasa behar delako... Antzerkia ikusteko, kontzertua entzuteko, liburuaren aurkezpenera joateko, erakusketa ikusteko, denetarako txanda hartu behar da... Espontaneitatea, bat-batean datorrenari aurre egiteko gaitasuna makaltzen doakigu... Eta hori orain egin behar da? Baina nola egingo degu ba orain? Eta, seko blokeatuta gelditzen gara... Seko...

Bi hilabete lehenago txanda hartuta. Edo urtebete lehenago... Eta burua gero eta alferrago, ahaztu egiten zaizkigu, eguna datorrenean, egun horretarako dauzkagun zitak... Zitak eta zitak...

Hain aurreratuta bizi garenean, hain bihar, etzi edo... etorkizuna programatuta bizi garenean, unea, momentua bizitzea ahaztu egiten zaigu.

A, eta nola ez, momentua ere jaso egin behar da, argazkitan, bideotan. Jaso... dana jaso... Eta momentua zeinek bizi du? Argazkirik atera al dezue? A, bai...! Ba, bidali... eta esperientzia zuzenean bizi beharrean, besteek bizitakoa bizitzen bizi gara...

Halako batean konturatu naiz, argazkia ateratzeko aldentzen naizen bakoitzean, une horretan bizi beharrekoa galtzen dudala.

Banoa argazki zaharrak ikustera, horiek atera nituen bakoitzean galdu nuen bizi beharrekoa, memoria astinduz diferidoan bizitzera.

Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak
Josu Larrañaga,
Inhar Mutiozabal
Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak Mutrikuko Udalaren dirulaguntza jasotzen du:
Mutrikuko Udala

www.lurraldebus.eus
900 300 340

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:
www.kalaputxieus/garraioa

astelehenetik ostiralera

DB03	LEKEITIO - DONOSTIA						
Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00		
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25		
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30		
Donostia	(*) 7:55	11:30	14:30	19:30	---	(*) Unibertsitatetik	
DB03	**DONOSTIA - LEKEITIO**						
Donostia	8:00	11:00	(*) 14:30	18:00	20:30	(*) Unibertsitatetik	
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20		
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05		
DB04	**ONDARROA - MALLABIA**						
Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45	
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55	
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15	
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---	

OSTIRAL GAUEAN Mutrikutik: **23:25; 01:15**.

DB04	MALLABIA - ONDARROA					(*) lanegun ostiraletan	
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	(*) 22:05	
Eibar	6:05	7:05	orduro	21:05	22:10	22:15	
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:20	22:30	
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40	

OSTIRAL GAUEAN Mutrikura heldu: **00:25**. (Eibarren -25 min.)

DB05	MUTRIKU - ZUMAIA						
Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	
Deba	6:40	9:45	11:40	13:40	16:40	18:40	
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10	
DB05	**ZUMAIA - MUTRIKU**						
Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10		
Deba (35 min. zain)	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40		
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25		
DB06	**ONDARROA - SORALUZE**						
Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40
DB06	**SORALUZE - ONDARROA**						
Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03	LEKEITIO - DONOSTIA						
Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00			
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25			
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30			
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:10			
DB03	**DONOSTIA - LEKEITIO**						
Donostia	10:30	14:30	17:00	(ig) 20:30	(lr.) 21:00	(ig) igande/jai-egunak (lr.) larunbatak	
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50		
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35		
DB04	**ONDARROA - MALLABIA**						
Mutriku	(lr.) 7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	(lr.) 22:15	
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25	
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45	
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---	

LARUNBAT GAUEAN Mutrikutik: **23:25, 23:55, 01:55, 03:55, 05:55**.

DB04	MALLABIA - ONDARROA					(lr.) larunbatak	
Mallabia	(lr.) 6:50	7:45	orduro	19:45	20:45	21:45	22:00
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	22:15
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	22:40
Mutriku	7:55	8:55	orduro	20:55	21:55	22:55	23:00

LARUNBAT GAUEAN Mutrikura heldu: **01:10; 03:10; 05:10; 06:10**. (Eibarren -25 min.)

DB05	MUTRIKU - ZUMAIA					(lr.) larunbatak	
Mutriku	(lr.) 8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10
DB05	**ZUMAIA - MUTRIKU**						
Zumaia	(lr.) 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	(ig) 22:10
Deba (35 min. zain)	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23.25
DB06	**ONDARROA - SORALUZE**						
Mutriku	9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45	
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20	
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40	
DB06	**SORALUZE - ONDARROA**						
Soraluze	(lr.) 8:40	10:40	12:40	16:40	18:40	20:40	
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45	
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00	
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20	

www.euskotren.eus

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
BILBOTIK		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	8:29	22:29
Donostia	7:38	8:38	22:38

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
DonostiaTIK	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

MIKEL DEUNA EGOITZA

Ez da batzuetan erabaki batzuk hartzia erreza izaten. Denok nahi dugu bizitzan ondo zainduak izatea. Haurtzaroan, heltzen hasten garenean eta, nola ez, bizitzaren azken etapan. Nekea, txandak nola egin, kezka nola egongo dEn, medikuak, ospitaleak, etxea gartzela bihurtzen denean...

Heltzen hasiak garenean eta gorputz-buruak nekatuak daudenean gero eta behar gehiago sortzen da zaintzeko eta zainduak izateko.

Bizitzako gorabeherengaitik, gure amari bere azken bi urteak Mikel Deuna egoitzan bizitzea tokatu zaizkio, eta bidea zalantzaz beteta hasi bagenuen ere berehala lasaitasun bihurtu zen.

Ez dago hitzik eman diguzuen harrera eskertzeko, sentitu dugun hurbiltasuna eta zuen griña beti gauzak ondo egiteko!

Funtsezko, ezinbesteko langileak zaretela erakutsi zenuten pandemia garai gogor haietan, eta garbi geratu da zuen lanaren balioa gizartean.

Eta, nola ez, Nagusilanekoei, aste osoan zehar muxutruk, zuen denbora eskainiz ia egunero egiten duzuen lan eta zaintza zoragarriagaitik. Zenbat kanta, zenbat irrifar eta zenbat maitasun. Ikaragarria da egiten duzuena! Horrela ibili gara kanta, paseotxo, irrifar...

Eta horrela eman diogu bukaera ere orain bi urte Mikel Deuna egoitzan hasi genuen ibilbideari. Han eman zeniguten aukera goxo-goxo gure amarekin agurtzeko gabonetako egun gogor haiek pixka bat leunduz.

Mila esker gure ama eta gu hain ondo zaintzearren.

Benetan, gu ere zuen familia txiki horren parte sentitu gara. Bihotzez, mila esker!

Juanita Flores Altuna-ren familia

TXOKO EDER ELKARTEAREN OHARRA

Kaixo mutrikuarrok!

Txoko Eder elkarteko (Loretxu atzian dauan sozidadia) bazkide izan nahi? Oraintxe dezu aukeria!!!!

Bazkide izateko ez da kuota berezirik ordaindu bihar. Hillero 25 €ko kuotia ordaindu eta gero, urte osuan zihar 200 €ko gastua besterik ez duzu egin bihar.

Interesatzen zatzula? Jarri kontaktuan elkarteko edozeiñ kiderekin edota idatzi ohartxo bat zure datu pertsonalekin eta utzi gure sozidadeko postontzixan, eta segitxuan zurekin harremanetan jarriko gera.

Animatu zaitxez!!!! Ez galdu aukeria!!!!

Informazio gehixo bihar izanez gero, gure emailera ere idatzi zeinke, gustura erantzungo dizugu ta.

juntatxokoeder@gmail.com

Txoko Eder sozidadea
Zuzendaritza taldea

ESKERRIK ASKO GUZTIOI

Hamaika egunetan egon naiz ospitalean ingresatuta eta hamaika izan dira batetik eta bestetik jasotako animo-deiak eta mezuak. Emazteak, alabak eta semeak ere eman dizkidate zuen guztion indar-hitzak eta mezu goxoak. Horrelako momentuetan gustura entzuten dira horrelako hitzak, eta indarrak hartzeko ere oso ondo datoz. Eskerrik asko guztioi, hortaz, hitz horiengatik eta zuen pentsamenduetan hartzeagatik. Laster naiz bueltan!

Joseba Palenzuela Arrieta

Kalaputxi aldizkariak irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz aldizkaria@kalaputxi.eus helbidera. Aldizkariak ez du zertan bere egin idatzien edukia.

Eskerrak Mutrikuko herrixai!

Gaur, egun normal bat da gehixenontzat baina neretzat ez, Jose Ramon (senar eta aita) jun zakulako.

Jose Ramon eta bixok 60 urte ein degu elkarrekin eta 4 seme-alaba hazi ditxugu, lurrari ondo, gogor lotuta, zuhaitzak balira... biharra euki degunian eurak izan ditxugu onduan.

Herrixan ere, Mutrikun ez degu babes faltaik izan. Orain dala 5 urte, buruko gaitz batek jo zoanian Jose Ramon, golpe gogorra izan zan familixantzat baina baitxa zuetako askorentzat ere. Errekauak eitxera atera eta herritxarren animuak sarri jaso ditxut, baitxa gurpildun aulkixan pasau eta konturen bat esateko prest eon zeatenon laguntzia ere.

Azken urte hau ere San Migel egoitzan pasatu degu eta ondo zainduta eon da. Guzti honeitxik Jose Ramon eta bixon partez, eskerrak eman Mutrikuko herrixai.

Loli Egaña Amutxastegi



mutriku-
ko aker-
beltz ene-
ziako bie-
nalean
parte ha-
rtzen du

AKERBELTZ VENEZIARA DOA

Kaixo, Mutrikuko ume eta herritxarrok:

Normalian erraldoi eta buruhandixoi dantzan egin eta zuekin jolastia tokatzen zaku, baina Konpartsako lagunek neure lealditxik esnatu naue.

Badakizue zertako? Bidaia bat egitxeko!! Xirik, gu sortzen ari zala, buruan zarabilen ideia gauzatuko da!

Belgikako «Pettigoat Goverment» kolektiboko kidiak Mutrikuko Konpartsarekin harremanetan jarri ziran ni, Akerbeltz, Veneziako 2024ko Biurtekora gonbidatzeko. Europako beste erraldoi batzuekin Arte-bienalian Belgikako pabilloian egongo nai. Agian, Veneziako gondoletan ere ibiliko ei gera!

Horrez gain, beste leku batzuk ere ezagutuko ditxugu: Resiako Lakua, Padua... Gainera, Mutrikutik hara juteko bidia ere furgonetan egingo degu. Ze iruditzen, e? Aukera hau aprobetxatu biharra do, ez?

Bestalde, bidaia luzia izango da. Zazpi hilabete egongo nai herritxik kanpo, baiña zuekin Mari, Urtzi eta Sorgina erraldoiak, eta Txoro, Oker, Alper eta Txotxolo buruhaundixak jolas eta parrandarako prest egongo dira.

Veneziara eta mundura gure herrixan ordezkari modura nijua. Nirekin batera eramango ditxut euskeria, mitologixia, artia, herri izaeria... eta askotariko aldarrikapenak.

Hala ere, lasai egon, Italiako bidaia hau eta gero, etxera bueltatuko nai eta. Ni ez nai ize zuen irribarreik gabe, zuek zerate nik dantzan pozik egitxeko arrazoia.

Besarkada bana eta bueltatzen naizeneako prestatu kalejirarako!

Akerbeltz

«PETTIGOAT GOVERNMENT» KOLEKTIBOA

«Pettigoat Government» kolektiboa, Belgikako Kultura ministroak eskaera egin ostean, Veneziako 2024ko Biurtekoan antolatzaile izateko hautatua izan da.

Kolektibo honek artearen, kuradoretzaren, arkitekturaren, tipografiaren eta kartografiaren diziplinak bateratu nahi ditu erakusketa handi baten. Irakurketa artistiko sakon baten oinarritzen dute beraien jarduna, eta munduaren eta botere antolaketaren beste ikuspegi bat aldarrikatzen dute beraien proposamenean, eta hori guztia arte diziplinak konbinatuz. Talde honetako kideak bakoitza bere aldetik zebilen lanean bitartekari eta kritikari moduan, baina proiektu honetarako batu eta elkarte alternatibo, herrikoi eta parte hartze moduak aztertzea erabaki dute. Talde multidiziplinar bat osatzen dute zazpi kidek: Sophie Boiron, Valentin Bollaert, Simona Denicolai, Pauline Fockedey, Pierre Huyghebaert, Antoinette Jattiot eta Ivo Provoost.

Proiektua erraldoien figuratik sortuta dago, erraldoia bera ez dutelako folklore kultural soil bat bezala ikusten. Kolektibo honen ustez, erraldoiak herri-kulturaren eragile politikoak eta identitateak lantzeko tresnak dira. Herri tradizioan zirkulazioan dagoen jakituria hedatu eta gizarte-taldeen artean dagoen arrakala txikitzen dute. Azkenik, erraldoiek parte diren komunitatea ahaldundu eta antolatzeko aukera berriak sortzen dituzte.

Europako herrialde ezberdinetatik abiatuta, erraldoiek egindako bidaiak Venezian amaituko dira. Guztira zazpi erraldoi batuko dira: lau Belgikatik, hiru Frantziatik eta bat Euskal Herritik.

Proiekturako hautatutako erraldoiek trebetasun eta teknika ugari irudikatzen dituzte. Guztiek dute komunean elkartutako gizarteen bizitasun ez-instituzionalizatua, amateurraren herri-tradizioa maitasunagatik egiten duten lanbide ez-profesional guztiena. Haien itxurek, inauterietako ospakizunen oroigarri, estatus- eta balio-eskalak alderantzikatzen dituzten espazioak eskaintzen dituzte, ahots eta esanahien ugaritzeari bide emanez, espazio publikoaren arauak ezegonkortu eta bazterrei leku eginez.

Bestalde, herri desberdinetako erraldoiak Venezian batzeak, fikziozko bidaia bat irudikatuko du. Erraldoi bakoitzak bere herriaren paisaia eta iruditeria garraiatzen duelako.

Azkenik, Akerbeltzen bidaia martxoaren 9an hasi, eta zazpi hilabete beranduago, Veneziako Biurtekoarekin batera bukatuko da.

ERRIGORA: ESKUTIK ESKURA 2024

Eutsi gureari!

Olioaren prezioen eromena jasateko zaila izateaz gain, ulertzen ere ez da erraza. Merkatu logika nagusiak agintzen du bazter guztietan. Ez da gaurkoa logika global hau. Azken hamarkadetan, ondorio adierazgarriak ekarri ditu nafar erdi eta hegoaldeko nekazaritzan ere, gainbehera larrian utziz. Urrun baino urrunago gaude herri bezala ditugun elikadura beharrak aseko lituzkeen ekoizpenetik.

Logika horrek guztiok harrapatzen gaitu. Errigoraren komunitatea ere bai, jakina! Bizi ditugun kontraesanak norbanakoarenak baino komunitatearenak direla sinetsita, onartu eta aurre egitea ere taldean egitea eraginkorragoa delakoan gaude.

Gure ibilbide luze-laburrak hori erakutsi digu. 10 urte bete-bete hauetan bestelako bideei ekiteko gaitasuna dugula. Hamargarrenez, ekoizlearen jatorrizko prezioan, euskaraz etiketatuta eta auzolanean ehundaka herritan gauzatu eta haziz joan den bestelako ekoizle-kontsumitzaile hartu-eman hauxe bera da erakusle argia.

Ikusi dugu, gainera, ametsak egia bihurtzea posible dela eta duela urte batzuk asmo hutsak genituenak errealitate ukigarri ditugula honezkero. Eta ikusmiran baditugu amets berriak, atzera baino aurrera begira jarri garen udaberri bezpera honetan.

Eutsi diezaiogun, bada, gureari, egin dugun, egiten ari garen eta egiteko dugun bideari. Gure zailtasun, ahal eta ametsen bideari.

ESKATU

Otsailaren 25etik martxoaren 13ra egin daitezke eskaerak, Errigoraren webgunearen bidez (errigora.eus) zein telefonoz deituta.

ORDAINDU

Online eginez gero, bi zatitan ordaintzeko aukera izango duzu. Bestela, dena batera ordain dezakezu, eskudirutan, produktuak jasotzerakoan.

JASO

Maiatzaren 15ean jasoko dituzu produktuak Kalaputxiren lokalean, Luardo Etxean, arratsaldeko 18:00-20:00 ordutegian.

Bete etxeko despentsa

Urte guztirako Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra bidoiekin eta kontserba, pasta, arroz, lekale eta ardo sortekin. Auzolanari esker, zure herrian ekoizlearen etxean duen prezio berean.

errigora

Oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

errigora.eus
(+34) 848 87 12 23
9:00 - 13:30 5/7

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Camping Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

SANTA ESKEAN AUZO TXIKIEN ALDE

Auzo txikien jaiak bultzatuz bagatoz santa eskera aterik ate zabaldu asmoz kultura eta euskera, izan ere aurten, auzo txikietako jaiak laguntzeko asmoz etorri zaizkigu santa eskaleak, alegia, bildutako dirua Samikolla auzoko jai batzordeak jasoko du. Goizean goiz egunari hasiera udaletxe aurrean eman zioten; agintariei baimena eskatuz. Bertan elkartu ziren koplariak, trikitilariak, pandero-jotzaileak eta laguntzaileak, guztira ehun bat lagun. Horien artean aurkitzen zen hamabi urterekin osaba Azpillagaren babesean soinu-jotzen hasi zen Jon Ansorregi ere. Eta, gogoz eta energiaz betetako haur eta gazte mordoa. Ondoren, urtero legez, eliz atariko eskaileretan taldeko argazki ederra atera-eta, taldetan banatu ziren auzo zein herriko kaleak girotzeko. Guztira lau talde; Mijoa eta Galdua bailarara talde bat; Olatz eta Galbaixo inguruko baserrietara bigarrena; Laranga, Astigarribia eta Olabarrietako baserrietako bizilagunak koplatzera hirugarrena; eta talderik handiena kaleko txokoak girotzera. Eguerdian, indarrak hartzeko, aurretik arratsalde luzea baitzuten, bazkaltzeko elkartu ziren Gaztetxean: taldeak txandaka, denak batera ezin kabitu-eta. Ekin berriz ere arratsaldean koplatan: Samielako aitona-amonak alaituz, baserrietako biztanleak siestatik esnatuz eta iluntzean berriz, kaleko tabernak alaitzera. Garai batean, baserrietan ibiltzen zirenak saio luzea burutzen zuten baserritik baserrira, oraingoan aldiz, lanak aurrez bukatu-eta, kalekoekin elkartu ziren. Esan behar da baina, aurtengoa aurrekoak bezala dotore joan zela; ederra baita etxeko gazteak aitona-amonei koplatzea, baita koplariei etxekoak koplatan erantzutea ere, Erdikua baserriko Juan Marin kasua esaterako. Eta nola ez, horiek guztiak Arrate irratian zuzenean entzuteko aukera izatea. Aipatu gabe ezin utzi koplariak: Iñigo Arrizabalaga, Malen Aldalur, Angel Mari Peñagarikano, Peru Vidal, Alex Idoeta, Orlando Arreitunandia, Iñaki Apalategi eta Xabier Astigarraga.

ATZERRITARTASUN AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Herritar askoren behar bati erantzunez, Mutrikuko Udaleko Ongizate Sailak bultzatuta, otsailaren 8tik aurrera Mutrikun martxan izango da Atzerritartasun (extranjería) Aholkularitza Juridikoaren zerbitzua, SOS Arrazakeria erakundeak eskainia, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren bitartez, martxan ipinitako programaren baitan.

Ekimen hau kudeatzen duen Aholku-Sareak zera du helburutzat: atzerritartasunaren alorreko aholkularitza juridikoa eskaintzea kalteberatasun egoeran dauden etorkinei eta baita profesionalei -herri-administrazioetakoei eta hirugarren sektorekoei, etorkinekin inklusio-prozesuetan lanean diharduten heinean-.

Zerbitzua hileko bi ostegunetan emango da, 10:00etatik 14:00etara, Mutrikuko Konde kalea 18 behean, eta doakoa izango den zerbitzua jaso ahal izateko hitzordua hartu behar izango da aurrez honako bideetan: 943 24 56 27 telefonoan edo sos.gipuzkoa@sosracismo.eu e-postan.

aek 23. korrika HARRO HERRI

Irundik Baionarat

2024ko martxoaren 14tik 24ra

Honez gero jakina izango da, baina gogoratzea batere gaizki ez: **23 KORRIKA** Mutrikun izango dugu martxoaren 20an, ostegunez, eguerdiko 14,00 aldera. Debatik dator eta Mutriku zeharkatu ondoren ondarrutarren esku utziko du lekukoa.

PARTE HARTZAILEAK

Honako edizioan ere herriko mugimendu ia guztiek hartuko dute parte **KORRIKA**n: Ikastetxeek, kirol zein kultur elkarteek...

KORRIKA AURREKO EKITALDIAK

8 kilometro badagozkio Mutrikuri horiek 41 talde/elkarte/alderdi/... hartuko dute **KORRIKA**ren lekukoa.

Euskararen aldeko mugimendua ez da soilik egun horretara mugatuko, ekitaldi sorta bat izango dira giroa sortzen joango direnak. **KORRIKA** Batzordean parte hartzen duten eragile guztiek dute zer esana honakoan ere, bestalde, Udalaren Euskara Zerbitzuaren parte hartzea ezinbestekoa izan da agenda osatzeko orduan.

- **Otsailaren 18an**, Bizkarsoro filma Zabielen.
- **Otsailaren 23an**, Anonyme Popular ikus-entzunezko bertsoak Zabielen
- **Martxoaren 1etik 10era**: **KORRIKA** historikoaren erakusketa Zabiel Kultur etxean. Aurreko **KORRIKA** guztien muralak, argazkiak eta informazioa jasotzeko aukera izango dugu.
- **Martxoaren 15ean??** MRK-k antolatuta kontzertua gaztetxean.
- **Martxoaren 17an**, Euskaldunen jatorria, historia eta irria, bakarrizketa, Zabielen.
- **Martxoaren 19an**, KORRIKA TXIKIA herriko ikastexeek antolatuta.
- **MARTXOAREN 20an KORRIKA !!**
- **Martxoaren 22an**, Zubixa Elkartiak antolatutako musika zuzenean emanaldia.

Ziur gaude agenda gizentzen joango dela egunak hurbildu ahala.

GOGORATU

Asteazkenero biltzen dela **KORRIKA** batzordea Kalaputxin, arratsaldeko 7etan eta nahi duen edonork parte har dezakeela.

IURGI FLORES ARREITUNANDIA

Mila zorion, besarkada bat
Iurgi zure urtietan
galanixakin matxo handi bat
ailau zaku guri bueltan.
Nahiz zure bihotz haundixa gaitza
dan kabitzen gurietan
zu betirako eongo zea
Wazendarron bihotzetan.

1988/02/16 2024/01/18

Julio Guimerans Pereira

Galiziako uhinetan hezita

Arrantzan 10 urte zituenetik, Pontevedrako Bueu herritik Ondarroarako bidea hartu zuen bizitza egokiago baten bila, eta horretan saiatu izan da. Mutrikura ezkondu eta birraitona maitatua da gaur egun.

Non eta noiz jaio zinen?

1934ko martxoaren 8an jaio nintzen Pontevedrako itsasadarraren ezkerraldean kokatuta dagoen Bueu herrian, ia Atlantikoan. Beste aldean Portonovo eta orain hain ezagun egin den Sanxenxo. 12.000 biztanle zituen jaio nintzenean. Herri polita, oso hedatua, erdigune nabaririk gabea, etxeak han-hemenka sakabanatuta, bakoitza bere lursail txikiarekin. Hiru zinema areto genituen han orduan, baita dantzaleku bat ere. Itsasadarrean barnera eginda Marin herri populatua dago eta barnerago Pontevedra, probintziako hiriburua.

Gure familia, ama eta ni baino hamabost urte zaharragoa zen eta aita lanak egiten zituen anaiak osatzen genuen. Ez nintzen iritsi aita ezagutzera. Etxea herriaren goialdeko auzoan zegoen kokatua, eta, besteak bezala, lur zatitxo bat barazki batzuk ateratzeko. Txerriren bat ere hazten genuen.

Nolakoa zen zuen bizitza?

Umetan eskolara eta etxean laguntzen, orduko mutiko guztiak bezala. Ez zen izan eskola gure eginkizunik nagusiena, ahal genuenean joaten ginen, baina irakurtzen, idazten eta oinarrizko lau erregelak ikasi nituen: batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa. Hala ere, ez nituen eskolako gaiak errefusatu, eta gaur ere gustura manejatzen naiz neure "tablet"arekin, eguneroko albiste eta sareko zenbait gairen berri jakin nahian.

Julio Galizian, arrantzan

Praka motzetan eta oinutsik gogoratzen naiz hamar urte nituela hondartzako arrantzan. Txalupekin hirurogei edo gehiagoko luzera zuen sarea zabaltzen zen hondartzatik 500-600 metrora, eta hertzetan lotuta zuen soken bidez tiraka hondartzaraino eramaten zen, batzuetan gerriraino uretan sartuta. Zetorren arraina, txikia eta mota askotakoa, txalupa batera jasotzen genuen, eta arraunean lonjaraino eramaten saltzera. Ia egunero jarduten genuen lan horretan hondartzak aldatuz arrain gehiago jaso asmoz, beti ere leku hurbiletan.

Koskortzean beladun ontzietan ere ibili nintzen, eta Muros-eko itsasadarreraino ere iristen ginen arrantzara Atlantikoan zehar. «Xeitos» deitzen genien erabiltzen genituen sareei —sardinak nahastuta gelditzen ziren mailen artean, eta ondoren banan-banan askatu beharra zegoen—. Txibiak ere arrantzatzen genituen, beste arteak erabiliz. Gauak pasatzeko, itsasadarren ahoan zeuden irletara hurbiltzen ginen, eta lehorrean lo egin, inoiz, euria gertatuz gero, hondartzan zeuden txalupen azpian gordeta. Anekdota bezala, itsasertzeko beste aldeko hondartza batera joan ginen arrantzara, eta Portonovotik arraunean egin behar izan nuen Bueuko lonjaraino arrainarekin goizeko zortzietarako iristeko.

Anaiak, arrantzan ibilia bazen ere, zapatari lanetan jarduten zuen. Amak, etxeko lanez gain, astean bizpahiru egunetan, arraina erosten zuen lonjan, eta otarra baten hartuta Pontevedraraino joaten zen, hango baserritarrekin trukean, etxera barazkiak eta batik bat esnea ekartzeko.

Baina bizitza ez en soilik lana izango...

Jakina ezetz. Ume jokoak beti tartekatzen ziren lanarekin, baina adinean aurrera egitean neskatxen atzetik ere saiatzen ginen, eta ni, «bailongo» horietakoa nintzenez, dantzalekurako bidea egiten nuen igandeetan. Kintoen jaiekin gogoratzen naiz batik bat, ordurako neskatxa baten atzetik nebilen, eta, festan sartzeko adinik ez bagenuen ere, konpondu ginen biok hala-nola dantzalekuan elkarrekin izateko.

Noiz hartu zenuen serios itsasoko lana?

Hamalau urte bete arte ez ziguten ematen «itsasoratzeko kartilla», beraz ezin ontzi handietan jardun. Kartilla lortu

Ramonita eta Julio, ezkontza egunean

nuenean Marin-go bapore baten enbarkatu nintzen –ikatza labean errez berotzen zen ura, eta haren lurrunak helizea mugiarazten–. Gran Sol-era abiatu ginen arrastan bikotean. Matxuratu zitzaigun makina eta Ipar Irlandako portu txiki baten sartu beharrean izan ginen, bi egun geldi konponketa egin bitartean, eta berriro itsasoratzean, milia bat eta erdira, ura sartzen hasi zitzaigun kaskoaren azpiko aldetik. Nire hamalau urterekin, maleta hartu eta uretara alboan genuen itsasontzi bikotera. Hamalau urterekin naufrago!

Eta nola hartu zenuen Euskal Herriratzeko erabakia?

Hemezortzi urte arte itsasoan jarraitu nuen arrantzan, baina nire lagun minak eta biok, hobekuntza aukerarik gabe ikusten genuen gure bizitza horrela jarraituz gero, eta askotan hitz egiten genuen erabakiren bat hartu behar genuela etorkizunari begira. Neska banarekin genbiltzan eta azkar hartzekoa genuen erabakia, arriskuan ez erortzeko. Hala, Pontevedran nuen lehengusina batengana joan, neba Cadizen arrantzan zuena, eta harako planak egiten hasi ginen, baina egun batez, nire lagun horrek esan zidan: «Ondarroara joango gara, lana dagoela diote eta». Eta bi aldiz pentsatu gabe, non zegoenik gutxiago, maleta eskuan, Vigora joan ginen trena hartzera. Ez galdetu nondik eta nora ibili ginen, soilik dakit, galdezka-galdezka, Atxuriko estazioan aurkitu ginela gose ikaragarriarekin. Estazio aurrean zegoen taberna batera sartu eta ea lapikokorik jaterik ba al genuen galdetu. Baietz esan, eta non ateratzen digute nik inoiz jan ez nuen indiar gorri platerkada odolestearekin –bestelakoak ziren lapikokoak Galizian–, baina oso gustura jan, eta galdez-galde, hara non gertatzen garen Ondarroako Iparragirre tabernako mahai baten jarrita –ez galdetu Debatik edo nondik iritsi ginen, dena zen berria guretzat–. Bazkaltzen ari ginen bitartean agertu ziren bi armadore, hurrengo egunean txalupa baten arrantzara ateratzeko kontratatuz, baita apopilo hartuko gintuen etxea aurkitu ere. Halaxe hasi genuen gure bizitza berria.

Ondarroan beti arrasteko ontzietan?

Bai. Hasieran, Frantziatik ekarritako «bous» sare motarekin, bikotean, bakan… era askotan tokatu zait lana egitea. Gaztea zarenean dena berria, diru gordina, jaia, lana…, baina urteak igaro ahala zerbaiten falta sumatzen da bizitzan: familia giroa. Apopilo egonik hori falta nuen, Mutrikura etortzea erabaki nuen arte, eta Sabanika kalean giro berri eta egonkorrago bat aurkitu. Gero familiakoak izango zirenean.

Mutrikun izanik ezagutu nuen Ramonita, eta, familia bizitza horren goseak, 1960an ezkondu ginen. Berak 19 eta nik 26 urte.

Ezkonduta egotean beste gozotasun bat sentitzen zen lehorrera iristean, baina baita itsasoko gogortasuna gehiago nabaritu ere. Itsasoan egun asko eta etxean gutxi –ondo ezagutzen dute mutrikuarrek arrastako bizitza–, gero eta garbiago jabetzen nintzen bizitza ez zela soilik dirua etxera ekartzea, emazteak eta umeak aitaren maitasun adierazpenen beharra zutela. Porturatzen nintzenean emaztea umeekin etortzen zen askotan taxi baten, eta pozik erakusten nizkien itsasontziaren barrenak, gustura ikusiz olatu artean bizitzen nituen zuloak. Ez dut ezer berririk esango, baina armadoreen jokaera gertakizun batekin azalduko dut: Gabon bezpera zen eta portuan ez sartzeko agindua pasatu zioten patroiari. Honek, bermeotarra izanik, Bermeo aurrean ainguratu, eta txalupa bat etorri zen bere bila etxera eramateko; beste guztiok han gelditu ginen Gabon Gaua etxean pasa ezinik. Are gehiago, igerian ez zekien gazte bat erori zen uretara, itsasontziaren kaskoari heldu nahian zebilen une batetik bestera galtzeko zorian, gure laguntzak ezin erabiliz. Eskerrak ordeko patroiak kako bat bota zuen, eta, zorte handiz, gerrian zeraman fajatik heldu eta atera. Horrelakoak ere bizi izan genituen, tamalez. Mutrikun ere ibili izan nintzen une batzuetan baxuran, beti ere familiatik hurbilago izateko, baina aldatu beharra sentitu nuen.

Eta erabaki garrantzitsu bat hartu...

Bai. Lehorrean lan egitea erabaki nuen eta Elgoibarko «Metala» enpresan aurkitu nuen lana 1974an. Lanerako joan-etorria deserosoa bazen ere, autobusean eta trenean, ez nuen itsasoarekin konparatuz lan bezala hartzen. Egunero etxean emaztearekin eta umeekin egotea gozamena zen. Hainbeste, beste ume bat ekarri genuela zaharrenak 20 eta gazteenak 12 urte zituztela. Orain ia 90 urte betetzear nagoela, triste, batetik, orain ez asko Ramonita joan zitzaidalako; baina pozik, bestalde, nire Julio, Txelo, Belen, Eli, Roberto eta 8 biloba eta 4 birbilobekin. Bakarrik bizi naiz etxean, baina ez zait inoiz inor falta lausenguak jasotzeko. Ia 30 urte jubilatu nintzela, egun osoa dut niretzat. Eta ez daukat arazorik denbora ondo pasatzeko.

Hala ere, baduzu min ematen dizun arantzaren bat...

Ezin uka. Euskara mintzatzeko ez naiz gai. Kalaputxiri hilero begiratzen diot, gogoz, ulertzen dudan apurrak irakurriz, baina herriko berriak eta pertsonen esanak hain gustuko izanda, nire bilobak hartu beharrean izaten naiz itzultzaile moduan. Euskaltegira ere joan nintzen, ulertu apur bat egiten dut, baina solasean jardutea gustatzen zaidanarekin… ezin.

Kaskarra gogorra batetik, eta etxean zein kanpoan guztiek gaztelaniaz egiten didatenez…

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

KALAPUTXIXAK, pitxilikotiak eta tximeletak

Gehixenoi akorduan gordetako irudixak ekartzen diguz kalaputxixak. Udaberriko egun argixetan, hara eta hona, lorarik lora, eta gu atzetik saltaka; eskolako kuadernuan ere ez zan faltatuko kolore biziko pitxilikoterik. Baiña, horrezaz gaiñera, badira gurian bestelako kalaputxixak: Txotisek egindako motor txikixa, Mutrikuko herri-aldizkarixa...

2002ko apirillian 6 urteko mutrikuar bati galdetu nion ia zela esaten zion erderazko «mariposa»ri. *Tximeletia*, erantzun zidan. Nik, berriz, *kalaputxixa* ez dezu esaten? Berak erantzun, *bah! zer da... rebista bat, eta han ipintzen deu «Kalaputxi», baiña nik ez det esaten*. Kontuan hartuta Kalaputxi aldizkarixa 2001eko urrixan jaixo zala, bistakua da ondo informauta zauala ume haura. Ezagutzen zoan sei hillabeteko aldizkarixaren izena, baiña belaunaldiz belaunaldi erabillitxako izenari eskolan ikasitxako *tximeleta* hitzak gaiña hartu zion. Goguan dakat alkarrizketa harek zer pentsatua eman zidala.

21 urte lehenago, 1981eko apirillaren 4an, Mutrikuko portuan motor txiki baten botaduria egin zan. Hain zuzen ere, Damian Usandizaga «Txotis»ek (1925-2011) geure aitxarentzat egindako barku baten botaduria. Motor txiki haren izena: *Tximeleta*. Arreba eta bixon artian erabaki gendun izena. Gurasuek izena aukeratzeko esan ziguen, eta orduan ere eskolan ikasitxako izen ezaguna nagusitxu zan. Artian sei urte zakazen arrebak, eta nik lau.



Tximeletaren botaduria (1981-04-04).

Itoiz talde ezagunak «Tximeleta reggae» izeneko kantia sartu zoan 1985eko Espaloian diskuan: «*Tximeleta haiek hegal egiten, itsasoaren barren aldera...*». Baiña kasu hortan letria ez zan mutrikuar batena, Bernardo Atxaga asteasuarrak idatzi zoan-eta.

Hizkuntza-globalizaziua, beraz, aspaldi aillegatu zan Mutrikura.

Izenak, aukeran

Izen mordua dauka kalaputxixak Euskal Herri luze-zabalian. Horixe azpimarratu zoan R.M. Azkuek *Euskalerriaren Yakintza* (1935) lanian: «*Auxe da, ene ustez, euskerazko izenik geien dituen izakia. Bonaparte euskalari andiak laurogei izen bildu zituen*».

Mutrikun, esaterako, izen honek entzun ditxugu: *kalaputxixa, kalapitxixa, pitxilikotia, mitxilikotia* eta *mariposia*. Baiña, alde haundiz, bi izen nagusitzen dira: *kalaputxixa* kalian, eta *pitxilikotia* baserrialdian.

1924. urte inguruan *pitxilgotia* izena batu zoan Joxemiel Barandiaranek Astigarrabixan. Euskaltzaindiak 1922-1925 urtietan galdera-sorta bat pasatu zoan herriz herri (Erizkizundi Irukoitza), tartian zela esaten ete zan «mariposa». Bi mutrikuarrek erantzun zixuen, 27 urteko Genaro Piquer kaletarrak eta Astigarribixako 78 urteko Jose Angel Azpiazuk. Bixak bat etorri ziran erantzunian: *kalaputxi*.

Gerhard Bähr (1900-1945) legazpiarrak, 1928. urteko artikulu baten, intsektu honen erderazko izen nagusixaren etimologixa azaltzen deu: «*"Mariposa", es decir «Mari(a) pósa(te)», no es otra cosa que un sonsonete, una invitación que los niños dirigen a este insecto para que se pose en una flor y que ellos la cojan*». Euskerazko izen askoren kasuan oiñarrixan pitxi ('ederra, politxa') hitza dauala jasotzen deu, gurian esaterako: «*Kalaputxi hace pensar en pitxi (...), con la permutación de i en u tan frecuente en el vizcaíno. Casi podría afirmarse que kalaputxi es una imitación del castellano significando «¡pósate (cálate) linda!*».

Mijuan, beste izen batzuen artian, *kalapitxixa* esaten da. Izen hori da nagusi aldameneko herrixan, Ondarruan. 1924an, berriz, *txalapitxiye* erantzuna eman zoan 78 urteko Millán Chacartegui ondarrutarrak.

Lora eder bat

Bada lora gorri-gorri bat, oso ezaguna eta, moztu ezkero, errez ximeltzen dana (Papaver rhoeas). Mutrikun *amapola* eta *pitxilikotia* (&*mitxilikotia*) esaten zako. Gari-soluetan ertetzen zoan, eta, uztaua eta olua bezela, kendu egitxen zan solua jorratzen zanian. Deigarrixa da kalaputxixak eta loriak izen bera eukitzia. Euskera batuan, igualtsuak dira izenak, mitxoleta loria eta *mitxeleta* intsektua. Herri askotan izen bat bera egon da animalixa eta loria izentatzeko, Mutrikun esaterako. Urrutitxik ikusitxa intsektuaren trazia hartuko zixuen lora horri.

Pitxilikotiak (amapolak).

Kalaputxi eta har klasiak

Bi talde handitxan banatzen dira kalaputxixak: egunekuak

eta gabekuak. Azken horrek dira ugarixenak. Egun argiz ibiltzen diranak, jeneralian, kolore ikusgarrixak eukitzen ditxue; *gabeko pitxilikotiak*, berriz, diskretuaguak dira, grisaxkak eta marroixkarak. Horrek errazoi sinplia dauka: harraparixetatik ezkutatzeko eguna mimetizatuta pasatzen deue, oharkabian. Batzuek ostro itxuria hartzen deue, beste batzuek, berriz, egur puxketa batena. Gabeko kalaputxi txiki batzuei *sitsak* esaten zakue, eta, jakiña, ondo ezagutzen ditxugu beuren harrek erropia eta egurra jaten diguez-eta.

Egunez kolore eta tamaiña askotako kalaputxixak bistatzen dira Mutrikun, zurixak, horixkarak, pintxarrak, teilla kolorekuak...

Kalaputxi klase bakoitzak, gaiñerako bizidunek bezela, bere zientzia-izena daka, baiña Mutrikun ez daukae izen jakiñik. Dana dala, Mutrikun erabiltzen diran izenak etxe guztixetan ez dira beti sinonimotzat hartzen. Olatzen, esaterako, *pitxilikotiak* esaten zakue jeneralian, eta *kalaputxixak* pixka bat haunditxuaguak diran kolore horikuei. Azken horrei, batuaz «limoi-tximeletak» (Gonepteryx rhamni) esaten zakue. Horixe ei da lehelengo bistatzen dan pitxilikotia. Bada beste bat estilo hortakua, berde-horixka, batuaz: "kleopatra" (Goenepteryx cleopatra).

Limoi-tximeletia.

Olaberrieta bailleran, berriz, hiru izen batu ditxugu: *pitxilikotia*, *mariposia* eta *kalaputxixa*. *Pitxilikotiak* esaten dixue jeneralian; *mariposak* haundixaguak eta illunaguak dira. *Kalaputxixak*, berriz, pitxilikotiak baiño txikixaguak oraindio ere.

Baserritxarrekin hizketan eskua baiño zabalagua eta haundixagua dan kalaputxi baten berri izan degu. Batuaz: «paboi handia» (Saturnia pyri). Gabeko pitxilikotia da.

Baratzia dakenak ondotxo ezagutzen ditxue aza eta porru artian bistatzen diran kalaputxi zurixak. Bertan arrautzak egitxen deitxue eta, aurrerago, handik jaixotako har berdiak kendu ezinda ibiltzen dira baserritxarrak. Batuaz: «aza-tximeleta» (Pieris rapae) eta «aza-tximeleta handia» (Pieris brassicae).

Bado kaletarrek ere ezagutzen deuen har klase bat: *piñu-kokua* (Thaumetopoea pityocampa). Piñu-arboletan pasatzen deu negua, poltsa zuri batzuetan; illuntzian handik erten eta piñu-orrixak jaten ditxu. Gero, udaberrixan, eguraldixa epeltzen danian, arboletatik bajatu eta sokan ibiltzen dira, illera luze-luzietan, alkarri segika. Hortik erderazko izena, *procesionaria*. Har hori pozoitsua da, eta mingarrixa izan leike ikutzia. Txakurrak heltzen badio, konparaziotarako, jata mingaiñ dana haunditxuta gelditxuko zako. Baiña, txori batzuek gustura jaten ditxue piñu-kokuak: burubeltz, kuku, eta argioillarrek, esaterako. Gero harrak lurpera sartzen dira eta handik kalaputxixa jaixotzen da. Hori ere gabeko kalaputxixa da.

Piñu-kokua.

Harrak eta tximeletia.

Har lodi berde bati *lupua* esaten zako. Gure atzamarren besteko lodieria eukitzen deu. Patata-landaretan topatuko degu errezen, ostruak jaten. Baserritxarrek pozoitsutzat hartzen deue. Animalixa edo pertsona gaiztueitxio esan ohi da: «*lupua baiño okerraua da*». Har hori gabeko kalaputxi ezaguna bihurtzen da: batuaz «tximeleta pirata» (Acherontia atropos); erderaz «esfinge de la calavera». Benetan pitxilikote xelebria da, asko gustatzen zako eztixa, eta txillixuak egitxen ditxu.

Lupua.

Tximeleta pirata.

Esaerak

Herri askotan suerte onarekin lotu izan dira kalaputxi zurixak; beltzek, berriz, berri txarrak ekartzen ditxuela esaten da. Joxemiel Barandiaranek 1924. urte inguruan Astigarrabixan entzundakuaren berri ematen digu: «*la [mariposa] blanca fue hecha por Dios y su presencia en una casa se toma como señal de buena noticia; la negra fue hecha por el diablo, y su presencia en una casa es de mal agüero*».

Oraintsu, Olatz bailleran esan digue kalaputxi zurixek notizia onak ekartzen ditxuela. Olaberrieta aldian, koloria zehaztu gabe, ez zan hiltzen pitxilikoterik suerte ona ekartzen zeuelako.

Geure amak makiña bat aldiz esaten zigun umiak giñala, «*han kalaputxi zurixa, ahalegindu ikutzen, suerte ona dakar-eta*».

Mijo aldian esaera zahar eder hau ikasi degu: *otsaillian kalapitxixa baiño, hobe otsua ardi tartian ikustia*. Esaerak aditzera ematen deu ilbeltz-otsaillian eguraldi epelak egin ezkero, aurrerago etorriko dala negua. Bide beretik, Olaberrietan, beste esaera hau entzun degu: *San Sebastian bero, negua gero*. Bertakuek goguan dakae oraindik lehengo artzaiñek ahotan erabiltzen zeuen esaeria: *sansebastietan pitxilikotia ikusi baiño, nahixo otsua ikusi artalde barruan*.

Pertsona kaskariñ eta ganora gitxikuagaitxik esaten da: «buruariña hori, pitxilikotiaren modukua da». Hegan ere halaixe egitxen deu intsektu horrek, orain hona, gero horra; ez do jakitzerik nora egingo doan.

Azken *mariposa* bat ere bado. Baiña ez da intsektua, ezta loria ere. Mutrikun etxerik etxe santuak eramaten ziranian (Arantzazuko Ama, San Felizisimo, San Antonio...) norberaren etxian, santuaren urna aurrian, *mariposia* jartzen zan, lanparatxo txikixa, olixuarekin; biztu eta santuari errezatzen zakon.

Josu Larrañaga Arrieta

EDERRENA ZINEMA

Egileak: Izaro Elezgarai, Aimar Andonegi, Irati Lizardi, Jare Arruabarrena, Maddi Ortiz, Ayat Masbouh

«Makinistiarra»neko zine aretoak behea jo ondoren, Justo Urkirik ireki zuen Ederrena zine aretoa, 1951ko maiatzaren 6an. Eliza atzean zegoen, hau da, gaur egungo aparkalekuaren orubean. Ederrena «Hablan las campanas» pelikularekin ireki zen maiatzaren 6an. Toki eder hartan Mutrikuko adin guztietako pertsonak batzen ziren filmak, antzerkiak eta askotariko emankizunak ikusteko. Bospasei urtetara ixteko asmoa hartu zuenean, Don Jose Antonio Ezeiza abadeak hartu zuen ardura, orduko «luistar» gazteen laguntzarekin.

Zinea ostegun, larunbat eta igande arratsaldetan irekitzen zen. Gehienetan bolondresek egiten zuten lan. Bi pelikula mota zeuden: adinez nagusi zirenentzakoak eta adin txikikoendakoak. Lehen multzoko filmak ikustea galarazita zuten umeek. Zinean, herrikoen lanak ere aurkezten ziren, hau da, herriko jendeak sortutako antzerkiak eta bestelako ikuskizunak.

Kontu hauen berri izateko asmoz eta jakin-mina piztuta ia adin tarte guztietako auzotarrak bilatu ditugu zinemaren inguruko bizipenak konta diezazkiguten. Bizi izan ez genuenon argigarri eta gainerakoen oroigarri

Nagusiak (70-80 urte):

Umetan telebista asko ez zuten jarraitzen eta, orduan, ohitura zen familia osoak zine aretoetara joatea. Gehienak igande arratsaldetan joaten ziren, gauetan helduentzako pelikulak proiektatzen baitziren. Baina haurrok nerabe bilakatu zirenean eurak hasi ziren martxa hartzen eta zinema horren lema eramaten. Lagunarteko antzerkiak, pelikulak... eta bestelakoak antolatzen zituzten. Zinea eraiki zuten unearekin ez dira asko oroitzen txikiak baitziren baina ondo asko akordatzen dira eraitsi zuten momentuarekin. Jendeak pena handia hartu zuen, huraxe baitzen euren haurtzarotik hasi eta nagusi egin arteko denbora-pasa onenetarikoa. Proiektatutako azken pelikula Robin Hood izan zen, eta, itxura denez, zurrumurrua ailegatu zen askon belarrietara zinea harriz harri desegingo zela beste bat eraikitzeko asmoz, baina oraindik ez da berririk eraiki.

Helduak (40-60 urte):

Gaur egungo helduak umetatik bizi izan dute Mutrikun zinea egotea. Txikitatik joaten ziren igandero arratsaldeko bostetan «umeen pelikulak» ikustera, nahiz eta zazpietan beste pelikula bat bota, film horiek nagusientzakoak zirelako. Normalean lagun kuadrillarekin joaten ziren Ederrena zinemara arratsalde pasa. Sarreran txarteldegi bat zegoen sarrera hartzeko eta barrura sartu orduko goxoki denda bat zegoen. Zinea itxi zuten momentua oso ondo gogoratzen dute eta herriarentzat aldaketa handi bezala bizi izan zuten. Gerora, zinea itxi ostean, Zabielen pelikulak botatzen zituzten tarteka baina inoiz ez zen bueltatu garai hartako giro hura errepikatzera. Pelikula askotan jendeak ozen aipatzen zituen bere ikuspuntuak eta denen artean barrezka egoten ziren. Jaialdi guztiak ere bertan egiten ziren eta beraien seme-alaben dantzen oroitzapen asko dituzte.

Gazteak (28 urte):

Egungo gazteak jaio zirenean, Ederrenak urte dezente zeuzkan eta jada bere azkenetan zegoen. Askok dauka oraindik filmen bat edo beste ikusi izanaren oroitzapena baina gehienbat familiako kontakizun huts bihurtu dira: zer ikusi zuten, ze egunetan joaten ziren... dena gurasoen hitzetatik ateratakoa da. Horren ondorioz, zine aretorik gabe gelditzeko penaz bai baina ez zaharragoak bezain goibel, izan ere, zine hori azken hauentzat altxor bat baitzen.

Gero, jada beranduago, Zabielen zinea emanaldiak hasi zirenean, talde honek handiegitxo ikusten zuen bere burua pelikulak ikustera joateko eta, beraz, ez daukate herrian zinea ikusi izandako oroitzapen handirik.

Institutuko ikasleak (15 urte):

Ikasle hauek 15 urterekin apenas entzun duten Ederrenaren berri. Familiaren parte handiena Mutrikuarra daukan jendeak zeozer entzunda dauka edo honen inguruko kontakizunak, istorioak, non zegoen badaki baina herrian hazi ez direnak edo familiako kideak mutrikuarrak ez dituztenak ia entzun ere ez dute egin honi buruzko ezer. Ikasleok eduki dugun zine bakarra Zabiel Kultur etxekoa izan dala diote, baina hau txikitan izan zen eta jada amaitu zen garai hori. Egun ez dago modurik inon lagunekin filmak ikusteko herritik kanpora joanda ez bada.

Nerabeen iritziz, zinez eskertzekoa litzateke berriro zine zaharra ezin baina sikiera zine areto berri bat jartzea, Mutriku herri txikia izanik denbora pasatzeko gauza gutxi baitago eta are gutxiago orain negua eta hotzak iritsi diren honetan.

Mutrikuar gazteak Bragan

ERASMUS+ programa

Egileak: Izaro Elezgarai, Jare Arruabarrena, Maddi Ortiz, Ayat Masbouh eta Elene Palacin

Mutrikuko institutuko 4. DBHko 15 ikasle Portugalen izan dira «ERASMUS+» programari esker. Ikasle askoren interesa pizten duen ekimen honen berri emateko eguneroko formatua baliatu dugu, ikasleok geure bizipenak lehen pertsonan kontatzeko aukera onentzat daukagulako eta informazioa irakurlearengana modu biziagoan iritsiko delakoan.

Ea zer deritzozuen!

Igande goiz batez joan eta hurrengo ostiral arratsaldean bueltatzeko asmoz joan ziren. Bilboko aireportuan hartu zuten hegazkina eta ordu bat hegazkinean pasa ondoren Oportoko aireportura iritsi ziren. Aireportuan autobus bat hartu zuten 20 minututan Bragako autobus geltokian ziren. Han lehendabiziko harrera izan zuten herriko eta harrerako gurasoek zein beste familiako kideek eskainia. Igandean bertan izan zuten familia ezagutzeko tarte polit bat.

URRIAK 22 (1. eguna):

Hegazkinetik jaitsi gara eta autobusa hartu dugu Bragara heltzeko, bertan zerbait bazkaldu eta familien zain egon gara hiria ezagutzen genuen bitartean. Arratsaldea etxekoekin pasatu dugu.

URRIAK 23 (2. eguna):

Gaur, astelehena 23, goizez guztiok institutura joango gara. Bertan institutua erakutsiko digute eta jolasean arituko gara. Elkar ezagutzeko jolasak izan dira, taldekakoak. Ondoren, bazkaltzeko ordua iritsi eta jangelara joan gara.

Bazkaldu ondoren autobusa gure zain zegoen. GNRATION izeneko kultur etxera abiatu ostean, erakusketa bat ikusi dugu. Berriro autobusa hartu, eta BOM JESUS DO MONTE jauregira joan gara, eta gustura, Bragako toki ederrenetako bat ezagutu dugu.

Amaitzeko, familia institutuan geneukan zain eta bakoitza bere etxera joan da.

URRIAK 24 (3. eguna):

Asteartea, hilak 24. Goizean denok eskolara joan gara. Gero, Oportora joan gara eta bertan museo bat bisitatu dugu, hain zuzen ere, ardoari eskainitako museo batera. Ondoren, itsasontzian ibiltzera joan gara, euriak nahi beste gozatzea eragotzi digun arren, ikaragarri gozatu dugu txangoa. Bazkaltzeko merkataritza-gune bat proposatu zaigunez, haraxe hurbildu gara. Han bazkaldu eta ordu bat eta erdi utzi digute erosketak egiteko. 17:00etan atera gara leku hartatik, autobusa zain geneukan. Eskolara heldu gara eta harrera-gurasoekin haien etxera itzuli gara.

URRIAK 25 (4. eguna):

Asteazkena ere iritsi zaigu. Goizean denok eskolara joan gara, lehenik kirola egin dugu patinetan, badmintonean, askotariko jolasetan eta elkarren aurka futbolean ibili gara. Ondoren, eskolan bazkaldu dugu eta arratsaldean denbora librea eduki dugu. Denbora librean dendetara joan gara Braga parkera (merkataritza-gunera).

URRIAK 26 (5. eguna):



Gaur goizean ere, ohikoa denez, eskolarako joan etorria egin dugu. Ari gara zerbait ikasten! Ondoren, autobusa hartu eta zubiekin osatutako bide bat egin dugu. Amaitutakoan Paint ball egitera joan gara, bakoitzak bere jantziak jantzi eta borrokan hasi gara. Eguerdian han inguruko jatetxe batera joan gara eta oso ondo jan dugu.

Arratsaldean, Halloweeneko labirintoan ibili gara eta hainbat arma eskuan tiroka jardun dugu. Jarduera amaitu ostean, eskolara joan gara autobusean eta harrera-familiarekin batera haien etxera itzuli gara atseden hartzera.

URRIAK 27 (6. eguna):

Azken eguna izango dena berezia izango da ikastetxean ere. Areto nagusian elkartu gara eta aste honetan ateratako argazkiekin egindako bideoak ikusi ditugu. Erasmus ziurtagiria ere jaso dugu ikasle guztiok. Honen ondoren, jangelara joan eta otordua osatu ostean lagun berriak agurtzeko beta hartu dugu. 11:00etan aireportura eraman behar gaituen autobusa hartu dugu. Arratsaldeko 18:00etan iritsi gara Bilbora.

Ederra izan da!

Kazetaritza etxetik urrun: Bada beste bide bat

Sean Ituarte gaztea Bilbon ikasten ari den mutrikuar eduki sortzailea da. Mutrikutik at bizitzen eta sare sozialetan murgiltzen izan dituen esperientziak erabat interesgarriak dira.

Aurkeztu zure burua, zaletasun eta bizilekua aipatuz.

Sean: Sean Ituarte Lekube naiz, 19 urte ditut eta gaur egun Bilbon bizi naiz. Kazetaritza eta Ikus-entzunezko gradu bikoitza egiten ari naiz Leioan, eta bigarren mailan nago. Nire zaletasun handienak, idaztea eta futbola.

Azaldu iezaiguzu noiz eta zergatik erabaki zenuen Mutrikutik kanpo bizitzea, kasu honetan ikasketak zirela medio; eta nolakoa den hirian bizitzeko esperientzia Mutrikuar batentzat.

Txikitatik nahiko argi izan dut 17-18 urterekin kanpora irtengo nintzela nire ikasketak burutzera, eta, nahiz eta Mutrikutik hurbil egoten jarraitu, esan dezaket helburu hori bete dudala. Zorionez, ikasten ari naizen gradua nire gustukoa da, Bilbo hirira oso ondo moldatu naiz eta gustura nago nire egunerokotasunarekin. Jende berria ezagutzeak asko lagundu du prozesu honetan, hasieran beti kostatzen delako leku berri batera moldatzea eta betiko bizitza aldatzea, baina asko lagundu nau pausoa betiko jendearekin emateak ere.

Oraindik herriarekin harreman estua duzu, asteburuak etxean igarotzen dituzulako. Zeintzuk gauza egiten dituzu Mutrikura itzulitakoan? Eta zeintzuk hartzen dituzu faltan zure egunerokotasunean?

Nahiz eta Bilbon oso gustura egon, asteburuetan Mutrikura itzultzeko irrikan egoten naiz. Herriko futbol taldearekin jarraitzen dut, entrenatuz eta partidak jolastuz; kuadrillako lagunekin batzen naiz, aitona-amonei bisitak egiten dizkiet, neska-lagunarekin zerbait hartzen dut… Beti egin izan ditudan gauzak eta astean zehar faltan hartzen direnak, herriko gauzak, berriro nire bizitzara itzultzen dira.

Mutrikuri dagokionez, non ikasi eta jolastu zenuen?

Samielan ikasi nuen eta DBH zein Batxilerra ere Mutrikun egin nituen. Betidanik ibili izan naiz frontoian, eskola kirolean eta Mutriku FT-n, eta gaztetatik gustatu izan zait esperientzia horiek lagunekin partekatzea. Gaur egun ere bide horretan jarraitzen dut.

Mutrikutik kanpo ere, zer gustatzen zaizu egitea? Zein gauza egiten dituzu Bilbon, Mutrikun egiteko zailagoak direnak?

Batez ere hiri handiek eskaintzen dituzten aukera kulturalak aprobetxatzea. Dena eskura daukagu, zinema edo kontzertuetatik hasita denda eta taberna txikiak bisitatu arte. Mutrikuk, eta orokorrean herri gehienek, ez daukate hori guztia eskaintzeko aukera, eta alde handia igartzen da. Bilboko kaleek edozein ordu edo egunetan bizitza handia daukate, eta hori da benetan gustatzen zaidana.

Ikasketak amaitu ostean Mutrikura itzultzeko intentzioa duzu? Ala hiriko bizitzak harrapatu egin zaitu?

Oraindik gutxienez 3 urte luze dauzkat gradua amaitzeko, eta ez dut pentsatu non biziko naizen karrera amaitutakoan. Argi dut Mutrikuri lotuta egongo naizela betiko, bertan jaio eta hezi nintzelako, nire bizitzako zati handiena bertan edukita; baina ez daukat oso argi zein izango den nire egoera hemendik eta urte batzuetara.

Kanpoan edukitako ikasketa eta esperientziei esker, gure herrian zerbait aldatzea gustatuko litzaizuke? Zerbait gehitu?

Kanpoan bizitzeak erakutsi dit Mutrikutik kanpo gauza asko daudela, baina aldi berean ez dagoela ezer Mutriku bezalakoa. Berezia da, gure betiko lekua. Gauza asko daude hobetzeko, baina zerbait aldatzea kostatuko zitzaidan. Beti izan da horrelakoa, eta horrela maite dugu.

Jakin dugunez, kazetaritza munduan murgilduta zabiltza, sare sozialetan bereziki. Errealzalea izanda, 25.000 jarraitzaile baino gehiagoko Instagram kontua zenuen. Zer ikasketa atera duzu proiektu horretatik?

Betidanik gustatu izan zait hainbat gaiz hitz egitea, eta bereziki idaztea. Futbola asko bizi dut, eta nire zaletasunari buruz idaztea erabaki nuen. Errealaren berriak ematen hasi nintzen, bideoak editatzen… eta jende asko niri jarraitzen hasi zen. Oso polita da zure zaletasuna partekatzen duten pertsonek zure lana kontuan hartzea eta egunero mezu positiboak jasotzea. Sekula ez nuen imajinatuko horrenbeste jendek nire Errealeko gogoetak irakurri izana, lan asko eraman du baina oso polita izan da.

Etorkizunean kirola eta Errealarekin erlazioa duen beste proiekturen bat sortzea gustatuko litzaizuke? Duela gutxi Instagramekin arazoak izan dituzu...

Nire zaletasun handiena hori da, eta bide batetik edo bestetik horretara iritsi nahi dut. Gradu bat daukat amaitzeko eta gauza asko buruan, baina etorkizunean nire kazetari lanari jarraipena eman nahi diot. Eta noski, Erreala eta sare sozialak baldin badaude medio, hainbat hobe.

Amaitzeko, test azkar bat egingo dugu:

Malenak ala Kalbaixuak? Kalbaixuak
Arnora igo ala Kalbaixora? Arnora
San Miguel zelaian jolastu ala kiroldegian? San Miguelen
Igerileku berria ala zaharra? Zaharra
Leku onena lagunekin zerbait hartzeko? Zubi
Mutrikuko zure lekurik gustokoena? Danborra
Pertsonaia ospetsu bat mutrikuar bihurtzeko? Cillian Murphy

Eneko Erraiz Amado

ZINEA

OLD BOY

Mendekua ez da bide erraza. Denbora asko, hainbat pentsamendu... Jakin badakizu bide horretatik ez dela ezer onik aterako, baina, gorrotoak nahiz amorruak itsututa, aurrera egiten duzu.

Oldboy mendeku istorio bat da, min egin digutenei atzera min emateko noraino heldu gaitezkeen kontatzen diguna. Uneko biolentzia errazetik hasi, eta denbora luzez pentsatutako kalteraino. Norbere bizitzaren zentzua galdu arte.

Ez da bide gozoa mendekuarena. Egin diguten kalteaz ahaztea errazagoa da, barneko gar gaizto horri ihes egiten utzita. Baina, batzuetan, ezin dugu beste biderik hartu.

«Egin barre, eta munduak barre egingo du zurekin.
Egin negar, eta bakarrik egingo duzu».



FITXA TEKNIKOA

Zuzendaria: Park Chan-wook (1963, Seul, Hego Korea)
Gidoia: Park Chan-wook, Hwang Jo-yoon, Im Joon-hyiung
Aktoreak: Choi Min-sik, Yoo Ji-tae, Kang Hye-jung, Kim Byeong-ok
Urtea: 2003
Iraupena: 2 h 00 min +18

LITERATURA

Nire Minaren Etxean

Iñigo Antsorregi

Nire Minaren Etxean liburuan, bere esperientzia abiapuntutzat hartu, eta depresioaren itsaso ilunean nabigatu du autoreak. Arrunt egiten zaigun beste edozein gairekin legez, bere suizidio planifikazioa kontatzen digu, modu gordin eta zintzoan; baita nola planifikazio horrek berak salbatu zuen ere.

Umorea galdu gabe, tabutzat hartu izan diren gaiak planteatzen ditu Antsorregik: gaixotasun mentalak, bakardadea, zaintza emozionalaren beharra. Eguneroko baten estiloan idatzita, autoreak bere buruaren gainbehera kontatzen dio irakurleari. Gainbeheraren hasieran zein haren puntu gorenean zegoeneko gertaerak kontatzen ditu, eta irakurlearen parte-hartzearekin jokatzen du zenbait momentutan.

Gai gogorra izanagatik ere, umorea mantentzen du autoreak kontakizun osoan zehar, eta, horrela, irakurlea eroso sentitzea lortzen duela esan daiteke.

Guztia horrela, irakurraldiaren gozamenaz gain, gaixotasun hori pairatzen dutenen barruak zertxobait hobeto ulertzen lagun diezaguke irakurketa honek.

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

....ZORIONAGURRAK....

74ko KINTADA

Zorionak denoi!
50 urte!
Aurten kintada berezia izango dugu!

LIBE

Zorionak gure etxeko politxari! Segi holako alaixa eta jatorra izaten!
Dagoeneko 2 urte!

IXUA

Zorionak gure etxeko printsesari!!! Gure bizitzan, 9 urtetan, poztasunaz betetzen!!! 9 musuuuu!!!!

EINAR

Kantari Kantari Kantari Zorionak gure Einarri!!! 3 urte haundi!!! Matxo haundi bat aita, ama eta bereziki Maddin partez!

EKAIN

Zorionak Ekain!
Dagoeneko 8 urte!
Asko maite zaitugu.
Muxu potolo bat.

PAULE eta JOL

Batek bi, eta bestiak zazpi putzara. Zorionak eta muxu goxo bana!

IXUA

Zorionak Ixua, Oierren partez muxu haundi-haundi bat! 9 urte ya...!
Segi holako alaia izaten!

IXUA

Zorionak Ixua, Izar eta luneren partez...
Txokolatadaren zain gaude!



LEA

Zorionak familiako danon partez!
Dagoeneko 7 urte!

ITZIAR

Zorionak Amona!
Jun txokolatadia preparatzen, gu etorriko gea ta!

ARANTXA

Eskerrik asko amama, eskatu gabe eman dizkiguzun muxu eta maitasunen truke.
ZORIONAK! Elaia eta Maddi

MARKEL

Zorionak txiki! Martxoaren 3an irribarrez beteriko 6 urte betetzen dituzu! Muxu handi bat bereziki Maialen eta Oierren partez.

LAGUNA

Zorionak lagun, zaren modukoa zarelako!
Eutsi horri eta ospa dezagun!

LAGUNA

Zorionak lagun!
Segi orain artean bezain jator!

ZORIONTZEKO ARGAZKI ZAHARRAK ERAKUSTEKO

 # aldizkaria@kalaputxi.eus # whatsapp 635748393 #

TXOKO EDER
elkartea

TXOKO EDER
Bazkide berriak hartzeko kanpaina
izena eta telefonoa buzoian sartu
San Gil kalea (Loretxu atzean)
edo idatzi mezua
juntatxokoeder@gmail.com

Argazki Zaharrak

ZUBIXA TXIRKUS, 1985 urteko Inauterietan

Goitik behera eta ezkerretik eskubira:

Jose Ramirez "Fiti", Fernando Azkue, Patxi Itziar, Juan Luis Zabala, Luis Ansorregi.

Arazeli Sualdea, Itziar Egurbide, Begoña Momoitio, Jose Luis Arrizabalaga, Karmele Laka, Belen Suarez. Eugenia Miranda (elefantea), Leo Belaustegi, Aintzane Ansorregi, Auro Ansorregi, Mila Basterretxea "Txino", Maite Beitia, Rosa Cuevas, Joakin Larrañaga, Jose Luis Furundarena, Arantxa "Kilkerra", Izarra Bedialauneta, Arantxa Ugarte eta Arrate Urreisti.

BOLTSOI BALETA, 1985 urteko Inauterietan

Juan Luis Zabala, Jose Ramirez "Fiti", Fernando Azkue, Luis Ansorregi, Patxi Itziar eta Leo Belaustegi.

2024ko farmazia guardiak

OTSAILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

			1 Lasuen-Elez	2 Lasuen-Elez	3 Lasuen-Elez	4 Lasuen-Elez
5 Zalduegi	6 Zalduegi	7 Zalduegi	8 Zalduegi	9 Burgoa	10 Burgoa (2)	11 Burgoa
12 Lasuen-Ele	13 Lasuen-Ele	14 Lasuen-Ele	15 Lasuen-Ele	16 Apraiz	17 Apraiz	18 Apraiz
19 Burgoa	20 Burgoa	21 Burgoa	22 Burgoa	23 Zalduegi	24 Zalduegi (1)	25 Zalduegi
26 Apraiz	27 Apraiz	28 Apraiz	29 Apraiz			

MARTXOA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

				1 Lasuen-Elez	2 Lasuen-Elez	3 Lasuen-Elez
4 Zalduegi	5 Zalduegi	6 Zalduegi	7 Zalduegi	8 Burgoa	9 Burgoa (2)	10 Burgoa
11 Lasuen-Ele	12 Lasuen-Ele	13 Lasuen-Ele	14 Lasuen-Ele	15 Apraiz	16 Apraiz	17 Apraiz
18 Burgoa	19 Burgoa	20 Burgoa	21 Burgoa	22 Zalduegi	23 Zalduegi (1)	24 Zalduegi
25 Apraiz	26 Apraiz	27 Apraiz	28 Apraiz	29 Lasuen-Ele	30 Lasuen-Ele	31 Lasuen-Ele

EGUNEKO GUARDIA ZERBITZUA
09:00 - 22:00
Larunbat goizetan 09:30-13:00
Igande goizetan 11:00-13:00

Lasuen-Elezgarai.....626 611 392
Lon Apraiz.....630 055 097
Hiart Burgoa (Deba) 667 338 890
Amaia Zalduegi (Deba)... .669 262 201

GAUEKO GUARDIA ZERBITZUA
22:00 - 09:00
Mikel Lekunberri Alberdi...943 20 42 30
Isasi 31, 20600 Eibar

AGENDA

Otsaila

23 · 19:00 Zabiel ganbara — Anonyme Popular (korrika kulturala)
24 · 19:00 Konbentua — Musika hilabetea: ELBA hirukotea
28 · 18:00 Zabiel ganbara — Kulturarteko topaketak
· 17:30 EMAgunea — Gizonak parekidetasunerantza

Martxoa

1etik 10era Zabiel — Erakusketa: Korrika historikoa
2 · 16:00 — XXXIX. Atxukale Junior Saria
4 eta 11 · 10:15 Luardo — Txi Kung ikastaroa
6 · 18:30 EMAgunea — «Ez dadin bizitza eten» liburuaren aurkezpena eta solasaldia
· 17:15 Liburutegia — «Ez sartu zaku berean» ipuin kontaketa (Lur Usabiaga)
8 — **Emakumearen Nazioarteko Eguna**
12 · 18:00 Zabiel — «Beldurrak haurtzaroan» hitzaldia
15 · 19:00 Zabiel — Geuretik Sortuak: Komiki erakusketa
17 · 18:00 Zabiel — Bakarrizketa: euskaldunen jatorria, historia eta irria (korrika kulturala)
17 eta 24 10:00-12:30 — Familientzako fosil tailerra eta itsas--irteera Nautilus gela didaktikoan
18 · 18:30 Luardo — Lotune III. bilera irekia
18tik apirilaren 22ra — Liburuaren astea Liburutegian
19 · 14:00 — Korrika Txikia
20 · 14:00 — **KORRIKA**
· 18:00 Zabiel — «Erresistentzia erromania eta feminismoa» Solasaldia (LOTUNE)
21 · — **Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna**
· 17:30 Zabiel — Omar Thior. Ipuin kontaketa.
· 17:30 EMAgunea — «Gizonak parekidetasunerantz» ikastaroa
22 · 19:00 Zabiel ganbara — «Magma Mia!» bakarrizketa (LOTUNE)
23 · Zabiel plaza — Musika hilabetea:Mutrikuko Musika Banda

BISITA GIDATUAK

· Zazpi hondartzak · Mutriku marinela ·
· Olatu planta · Nautilus, Flyscheko fosilak ·
· Arrietakua jauregia ·

Egunak, ordutegiak eta hizkuntza kontsultatzeko:
Turismo bulegoan edo www.geoparkea.eus helbidean

aldizkaria@kalaputxi.eus
whatsappa 635748393
martxoko aldizkarian
argitaratzeko
martxoaren 8rako
bidali zuen mezuak

MENDI-IRTEERAK 2024

Martxoak 17
La Arboleda – GANERAN (822 m.) – Galdames

Apirilak 28
Euskal Mendi Federazioaren "Ehun urte, Ehun mendi":
Markina – KANPANZAR (629 m.) – Deba

Antolatzaileak: Burumendi, Aurrera, Burdin Kurutz eta Artibai Mendi Taldeak.

ODOLA EMATEA 2024
apirilak 19

ekainak 21 · abuztuak 23 · urriak 18 · abenduak 20

17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

ERDI-MAILA:

MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA

BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOETAKO TEKNIKARIA

ELIKAGAIAK ELABORATZEKO TEKNIKARIA

GOI-MAILA:

ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA

MEKATRONIKA INDUSTRIALA

EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA

ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:

ZIBERSEGURTASUNA ERAGIKETA-TEKNOLOGIEN INGURUNEETAN

Eman izena!

Martxoak 16

10: 30 LANBIDE HEZIKETA

11: 00 BATXI LERGOA

Markina-Xemein | 94 616 90 02 | info@leartik.eus

www.leartik.eus

lea artibai ikastetxea

BERTAN

Mutrikuko Merkatarien Elkartea

... zure alboan

CÓNDOR

Arrain kontserbak

ZIZZO BILLANTE HNOS. S.A.
Mijoa Industrialdea, P-21 · 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa) Tel.: 943 60 31 41 Fax: 943 60 44 39

E
12.00.566/SS
C.E.